EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

**PRENTSARAKO OHARRA**

# EMAKUME HAUTETSIEN IV. BATZARRAK DEMOKRAZIA GARAIKO 116 BATZARKIDEAK OMENDUKO DITU

- **Giro nasaiak eta generoak eragindako bazterketarik bako gizarterako bidea alkarregaz egiteko konpromiso sendoak markau dabe aurtengo ospakizuna.**

- **Batzarrak martiaren 8ko mobilizazinoetan parte hartzeko deia egin dau.**

(Gernikan, 2020ko martiaren 6an). Gernikan gaur egin dan Bizkaiko Emakume Hautetsien IV. Batzarrak, ehun urte baino gehiago dituan Batzarretako egoitzako jarlekuak bete ditu barriro, alderdi politiko eta sentsibilidade guztietako 200 emakume baino gehiago helburu komunaren alde alkartuta: gizonen eta emakumeen arteko benetako bardintasunean aurrera egitea. Aurton, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzeak bere itxurarik onena erakutsi dau, demokraziako hamaika agintaldietan Bizkaiko Batzarretan noiz edo noiz jarlekua izan daben 116 emakumeei omenaldi berezia emoteko.

Jai eta errebindikazino giroan, une handietako sinbolismoagaz, omenduei musikagaz egin jake harrerea goizeko 11:00etatik aurrera. Beti Jai Alaia taldeko emakume dantzariek, antxina janzten ziran moduan jantzita, Lekeitioko Emakumeen Aurreskua dantzatu dabe. Dantzariek gidauta, 200 emakume baino gehiago, omendutakoen eta hautetsien artean, euren jarlekuetara joan dira, ospakizuneko zapiakaz.

Gizaldietan Bizkaiko Batzarren saioen haserea marketan eban “adarraren” soinuaren ostean, Batzarra aurreikusitako orduan hasi da, eguerdiko hamabiak baino apur bat lehenago. Ana Otadui, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak haserako berbaldian adierazo dauenez, aintzatespen hori, Bizkaiko batzarretan “*gizon baino emakume gehiago garan*” unean heldu da (26 emakume eta 25 gizon). “*Batzar honetatik igarota, emakumeek geure lidergoaren alde dagon eretxi publikoa sortzea bultzatu dogu, holan emakumeen gaitasun politikoaren inguruan egozan mitoak lurrera botaz eta lidergoko postuetan egotea ohikoa izatea be lortuz”,* esan dau. Eta, horren ostean adierazo dau bardintasun horrek “*ez dauela esan gura gizonak baino gehiago izan behar garanik, baldintza berberakaz lan egin behar dogula baino, alkarren ondoan, ezelango desbardintasun barik”.* Bukatzeko, konbidauen harmailetan ikusten ziran gizonei eskerrak emon deutsee euren laguntzarengaitik eta “*holango batzar berezian gugaz egoteagaitik*”. Emakumearen Nazinoarteko Eguneko beste ekitaldi erreibindikatzailea da, eta ekitaldia “instituzionalizetea” gurako leukela

esan dau.

Horren ostean, udalerrietako sentsibilitate politiko guztiak ordezten dituen sei emakumek (Ane Legarretaetxebarria, EAJ-PNV alderdiko Fruizko alkateak; Ima Garrastatxu, EH Bilduko Durangoko alkateak; Mª José Blanco, PSEko Portugaleteko alkateordeak; Laura Casado, Etxebarriko zinegotzi eta Herriaren Ahotsa taldeko kideak; Paula Amieva, Elkarrekin Podemoseko Getxoko zinegotziak; eta PPko Natalia Aranduyk, Martiaren 8ko, Emakumeen Nazinoarteko Eguneko, Erakundeen Arteko Adierazpena irakurri dabe. Adierazpena EUDELek (Euskal Udalerrien Alkartea) prestau dau, Emakundegaz lankidetzan (Izaskun Landaida zuzendaria ekitaldian egon da), eta Bizkaiko Batzar Nagusiek sinatu dabe. EUDELeko Batzorde Betearazleko Bardintasun ordezkari moduan Josune Irabien Amurrioko alkatea etorri da.

"EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK. Emakumeen botereak mundua aldatzen du" izenburuagaz, udal guztiakaz adostutako Adierazpenak adierazoten dau bardintasuna "ez dala soilik oinarrizko giza eskubidea, baita mundu baketsua, oparoa eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria", eta "*konpromiso irmoa" adierazo dau "bardintasunezko gizarte inklusiboa eregiten laguntzeko, persona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituana tokiko bizitzan".* Adierazpenak, domeka honetarako, martiaren 8rako, *"antolatuta dagozan mobilizazinoetan modu aktiboan parte hartzeko dei egiten deutse herritarrei".*

## OMENALDIA ETA AINTZATESPENA

Idazkia danen artean irakurri ostean, 1979tik, Demokrazia barriro ezarri zanetik Bizkaiko Batzar Nagusiak barriro beharrean hasi ziranetik, bertan jarlekua bete daben 116 emakumeei egin jaken omenaldia eta aintzatespenen banaketa hasi da. Datorren apirilean 41 urte beteko dira.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, bost batzarkide historikoren berbaldiei emon deutse bidea. Omenaldia jaso daben emakume guztien izenean, berba batzuk egin ditue. Ordena honetan, honeek igo dira Batzarretxeko atrilera: Gloria Ucar (PP), Ana Tellería (Elkarrekin Podemos), Janire Galarraga (PSE-EE), Irune Soto (EH Bildu) eta Ana Madariaga (EAJ-PNV), Bizkaiko Batzar Nagusietako lehenengo emakume Lehendakaria izan zana.

Horren ostean, 116 batzarkideen izenak eukazan bideoa emon da, eta gero, Ana Otaduik eta gaur alderdi politiko guztietako emakumeek osotu daben Mahaiko kideek –Arantza Urkaregik (EH Bildu), Begoña Gilek (PSE-EE), Eneritz de Madariagak (Elkarrekin Podemos) eta Carmen Carrónek (PP)–, Otaduiren berbetan "gure

historiaren, gure askatasunaren eta gura dogun bakearen ikurra dan haretx orria eukan orratz bat" emon deutse omendutakoei. Ohorezko aurreskuak, Miren de Miguel Bilboko sopranoak abestu dauen Iparragirreren, XIX. mendeko bardoaren, "Gernikako Arbola" ereserkiak, eta Gernikako Arbolaren azpian ateratako familiako argazkiak emon deutsie amaierea Bizkaiko Emakume Hautetsien IV. Batzarrari.

Alderdi politiko nagusien ordezkari gorenen artean, batzar berezian honeek hartu dabe parte: Itxaso Atutxa Bizkai Buru Batzarreko presidenteak (EAJ/PNV); Maddalen Iriarte EH Bilduren lehendakarigaia; Sonia Pérez Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merktaritza eta Kontsumo Sailburu eta PSE-EEko zuzendaritzako kideak; Verónica García Elkarrekin Podemoseko; eta Amaya Fernández Euskadiko PPko jarduneko presidente eta alderdi horrek Bizkaiko Batzar Nagusietan dauen bozeroaleak.

Gernikako ekitaldian ez dau hutsik egin Foru Gobernuko ordezkaritza zabalak, Elena Unzueta, Teresa Laespada, Lorea Bilbao eta Ainara Basurko diputatuek, hain zuzen be. Eurakaz batera, konbidauak eta omenduak egon dira jarrita, goraino beteta egon dan aretoan, kolore politiko guztietako legebiltzarkideak, kongresuko kideak edo batzarkideak, hain zuzen be. Lurraldeko udal gobernuetako ordezkaritza zabala be egon da, horreen artean alkate honeek: Amaia del Campo (Barakaldo), Amaia Aguirre (Getxo), Aintzane Urkijo (Santurtzi), Aitziber Oliban (Erandio), Jone Antsotegi (Aulesti), Esther Apraiz (Derio), Mª Teresa Artetxe (Morga), Angela Eguía (Gordexola), Saioa Elejabarrieta (Lemoa), Begoña Enbeita (Muxika), Miren Karmele Enbeita (Kortezubi), Maite Etxebarria (Abanto-Zierbena), Irantzu Ibarrondo (Sopuerta), Ainara Otxotorena (Mañaria), Elixabete Uribarri (Plentzia) edo Garbiñe Saenz de Buruaga (Ispaster).

Bigarren mailan, eta konbidauen tribunatik, hainbat gizonek jarraitu dabe Bizkaiko Emakume Hautetsien IV. Batzarra, Aitor Esteban Kongresuko diputatu eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari izandakoak, edo Jon Andoni Atutxa, Emilio Lobato, Oscar Arana, Zigor Isuskiza, Mikel Bagan, Unai Lerma, Ekain Rico, Jesús Lekerikabeaskoa, Raúl Méndez edo Xabier Benito batzarkideek.

NOTA DE PRENSA

# LA IV ASAMBLEA DE MUJERES ELECTAS DE BIZKAIA RINDE HOMENAJE A LAS 116 JUNTERAS DE LA DEMOCRACIA

- **Un ambiente distendido y el compromiso firme de avanzar juntas hacia una sociedad sin discriminación por motivo de género, han marcado la celebración de este año.**

- **La Asamblea anima a secundar las movilizaciones del 8 de marzo.**

(Gernika, a 6 de marzo de 2020). La IV Asamblea de Mujeres Electas de Bizkaia, celebrada hoy en la Casa de Juntas de Gernika, ha vuelto a llenar los escaños de la centenaria sede foral con más de 200 mujeres de todos los partidos políticos y sensibilidades, unidas por un objetivo común: avanzar en la igualdad real entre hombres y mujeres. Este año la sede parlamentaria de Bizkaia se ha vestido de gala para rendir un homenaje especial a las 116 mujeres que a lo largo de las once legislaturas de la democracia han ocupado asiento alguna vez en el Parlamento de Bizkaia.

En un ambiente festivo y reivindicativo, con el simbolismo de las grandes ocasiones, las homenajeadas han sido recibidas con música a partir de las 11 de la mañana. Dantzaris del grupo Beti Jai Alai, ataviadas con trajes y tocados antiguos, han bailado el Aurresku de Mujeres de Lekeitio. Dirigidas por estas, las más de 200 mujeres, entre homenajeadas e invitadas, han ido luego encaminándose a ocupar sus asientos en el hemiciclo con sus pañuelos conmemorativos.

Tras el sonar del "adarra", el tradicional sonido que desde hace siglos ha marcado el inicio de una sesión juntera en Bizkaia, la Asamblea ha comenzado a la hora prevista, minutos antes de las doce del mediodía. La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, en su discurso de apertura, ha destacado que este reconocimiento llega cuando en el Parlamento bizkaino "*somos más mujeres que hombres*" (26 frente a 25). "*Con nuestro paso por esta Cámara, las mujeres hemos promovido la formación de una opinión pública favorable al liderazgo femenino, derribando así los mitos alrededor de la capacidad política de las mujeres, logrando incluso que sea habitual que estemos en puestos de liderazgo*", ha dicho. Y después de advertir de que esa igualdad "*no significa que debamos ser más que los hombres, sino que trabajemos en igualdad de condiciones, mano a mano, y que no haya diferencias de ningún tipo*", ha finalizado agradeciendo a la presencia masculina, visible en la tribuna de invitados, por su apoyo y por "*compartir con*

*nosotras esta asamblea tan especial*", un acto reivindicativo más del Día Internacional de la Mujer que desea "se institucionalice".

A continuación, seis mujeres electas en representación de todas las sensibilidades políticas de los municipios (Ane Legarretaetxebarria, alcaldesa de Fruiz por PNV; Ima Garrastatxu, alcaldesa de Durango por EH Bildu; Mª José Blanco, teniente de alcalde de Portugalete por el PSE-EE; Laura Casado, concejala de Etxebarri y miembro de La Voz del Pueblo; Paula Amieva, concejala de Elkarrekin Podemos en Getxo; y Natalia Aranduy, concejala de Getxo por el PP) han leído la Declaración Institucional del 8 de Marzo, Día Internacional de las Mujeres, elaborada por EUDEL (Asociación de Municipios Vascos), en colaboración con Emakunde -representada por su directora Izaskun Landaida - y suscrita por Juntas Generales de Bizkaia. Como representante de Igualdad en la Comisión Ejecutiva de EUDEL ha acudido Josune Irabien, alcaldesa de Amurrio.

Con el título "LAS MOVILIZACIONES DE LAS MUJERES. El poder de las mujeres que transforma el mundo", esta Declaración consensuada con todos los ayuntamientos, recoge que la igualdad "*no es solo un derecho humano fundamental, sino la base necesaria para conseguir un mundo pacífico, próspero y sostenible";* y expresa su "*firme compromiso para contribuir a la construcción de una sociedad igualitaria, inclusiva y que garantice los derechos y la participación de todas las personas en la vida local*". La Declaración incluye también "*un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones*" convocadas este domingo, 8 de marzo.

## HOMENAJE Y RECONOCIMIENTO

Tras la lectura compartida del escrito, ha comenzado el homenaje y la entrega del reconocimiento a las 116 mujeres que han ocupado asiento desde 1979 en el Parlamento de Bizkaia, desde el momento mismo en el que se restableció esta institución con la llegada de la democracia. El próximo mes de abril se cumplirán 41 años de esta efemérides.

La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia ha dado paso a las intervenciones de cinco junteras históricas que, en representación de todas las mujeres reconocidas, han dedicado unas palabras al hemiciclo. Por este orden, han subido al atril de la Casa de Juntas: Gloria Ucar (PP), Ana Tellería (Ezker Batuak-Berdeak / Elkarrekin Podemos), Janire Galarraga (PSE-EE), Irune Soto (EH Bildu) y la que fuera la primera presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga (PNV).

A continuación, se ha proyectado un video con los nombres de las 116 apoderadas, y

seguidamente Ana Otadui, y las representantes de la Mesa compuesta esta vez por mujeres de todos los partidos políticos - Arantza Urkaregi (EH Bildu), Begoña Gil (PSE-EE), Eneritz de Madariaga (Elkarrekin Podemos) y Carmen Carrón (PP) - han entregado a las premiadas "un alfiler con una hoja de roble que simboliza nuestra historia, nuestra libertad y nuestro anhelo de paz", ha explicado Otadui. Un aurresku de honor, la interpretación del himno "Gernikako Arbola", del bardo del siglo XIX Iparragirre, a cargo de la soprano bilbaína Miren de Miguel, y una foto de familia bajo el Árbol de Gernika han puesto el broche final a la IV Asamblea de Mujeres Electas de Bizkaia.

Como máximas representantes de los principales partidos políticos, han participado en la junta especial Itxaso Atutxa, Presidenta del Bizkai Buru Batzar (EAJ/PNV); Maddalen Iriarte, candidata de EH Bildu a lehendakari; Sonia Pérez, consejera de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco y miembro de la ejecutiva del PSE-EE; Verónica García, de Elkarrekin Podemos; y Amaya Fernández, Presidenta en funciones del PP vasco y portavoz de este partido en las Juntas Generales de Bizkaia.

En el acto de Gernika, no ha faltado tampoco una amplia representación del Gobierno Foral, con las diputadas Elena Unzueta, Teresa Laespada, Lorea Bilbao y Ainara Basurko. Junto a ellas, invitadas y homenajeadas compartían asiento, en un hemiciclo lleno, con parlamentarias, congresistas o junteras de todos los colores políticos. Tampoco ha faltado una amplia representación de los gobiernos municipales del territorio como las alcaldesas Amaia del Campo (Barakaldo), Amaia Aguirre (Getxo), Aintzane Urkijo (Santurtzi), Aitziber Oliban (Erandio), Jone Antsotegi (Aulesti), Esther Apraiz (Derio), Mª Teresa Artetxe (Morga), Angela Eguía (Gordexola), Saioa Elejabarrieta (Lemoa), Begoña Enbeita (Muxika), Miren Karmele Enbeita (Kortezubi), Maite Etxebarria (Abanto-Zierbena), Irantzu Ibarrondo (Sopuerta), Ainara Otxotorena (Mañaria), Garbiñe Saenz de Buruaga (Ispaster) o Elixabete Uribarri (Plentzia).

En un segundo plano y desde la tribuna de invitados, han seguido la IV Asamblea de Mujeres Electas de Bizkaia hombres como el diputado del Congreso y expresidente de las Juntas Generales de Bizkaia, Aitor Esteban, o los junteros Jon Andoni Atutxa, Emilio Lobato, Oscar Arana, Zigor Isuskiza, Mikel Bagan, Unai Lerma, Ekain Rico, Jesús Lekerikabeaskoa, Raúl Méndez o Xabier Benito.